



BIDEZKO MERKATARITZAKO KOADERNOA

2 zenbakia | 2013 maiatza



**ZURE
BIZITZA
GOZOAGOA EGITEKO
EZ DA
BESTEENA
MINGOSTU BEHAR**



COORDINADORA ESTATAL DE
COMERCIO JUSTO

Edizioa: Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundea (www.comerciojusto.org)

Idazleak: Gonzalo Donaire

Itzulpena: L. M. Sainz Pezonaga

Argazkiak: MCCH

Maketazioa: Masgráfica

Inprimaketa: Advantia Comunicación Gráfica

FSC ziurtagiria duen paperean inprimatua

Madril, 2013ko maiatza



Lan hau Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 3.0 Unported Creative Commons lizentziapean dago (CC BY-NC-SA 3.0). Lizentziaren kopia bat ikusteko: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/legalcode>



Koaderno hau, bai eta sartuta dagoen kanpaina ere, Garapenerako Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentziak (AECID) finantzaturiko proiektu baten barruan daude. Argitalpen honen edukiaz egileak baino ez dira erantzule, eta ez du halaberrez islatzen AECIDen iritzia.



	SARRERA	2
1	AZUKREAREN HISTORIA LABURRA: HELMUGA GOZOA BIDE MINGOTS BATEAN ZEHAR	3
	Produktu beraren jatorri eta etorki desberdinak	3
	Azukre-motak eta egiteko prozesuak	4
	Azukre ikusezina	5
2	AZUKREAREN MUNDU-INDUSTRIA	6
	Azukrearen kontsumoa eta ekoizpena munduan	6
	Prezioa: espekulaziozko beste errusiar mendi bat	6
	Non ekoizten den	8
	Elikagaia ala agroerregaia?	9
	Begirada kritikoa kontsumo arduratsutik	10
	Europar Batasunaren jokabide bikoitz mingotsa	11
	Azukre-ekoizpena Espainian	12
3	BIDEZKO MERKATARITZAKO AZUKREA	13
	Tokikoa, ekologikoa, bidezkoa... egungo debate bat lur-mailara eramaten	13
	Alternatiba erreala eta gero eta zabalduagoa	14
4	HAMAR ARRAZOI EMATEN DIZKIZUGU BIDEZKO MERKATARITZAKO AZUKREA KONTSUMITZEKO	15
	Nork ekoizten du bidezko merkataritzako azukrea?	15
5	BIDEZKO MERKATARITZARI ETA KANPAINARI BURUZKO INFORMAZIO GEHIAGO IZATEKO ESTEKA INTERESGARRIAK	17

Bidezko Merkataritza

Sortu zenetik, orain 50 urte baino gehiago direla, bidezko merkataritza pixkanaka sendotu izan da, hala alternatiba komertzial gisa, nola lankidetzeta eta garapenerako, sentsibilizatorako eta pobrezia murrizteko tresna gisa. Gizarte-bidezkotasunaren aldeko apustu zehatz bat, nazioarteko merkataritza-sistema bidegabean gutxien aintzat hartzen direnen duintasuna eta ekoizpen-ahalmenak balioz hornituta, harreman iraunkor eta horizontalen, lan-eskubideen, genero-zuzentasunaren eta ingurumen-iraunkortasunaren defentsa bat.

Bidezko merkataritzako produktuen salmentak, mundu osoan, 5.500 milioi euro baino gehiagokoak dira¹. Horren ondorio zuzena da eragin erabakigarriak izatea Asiako, Afrikako eta Latinoamerikako 70 herrialdeetako baino gehiagoko milaka talde ekoizle eta langilerengan. Europan, 500 inportazio-enpresa, 4.000 denda eta 100.000 boluntario baino gehiago daude zenbatuta gaur egun, eta halakoek ekarpen erabakigarria egiten dute jatorrian 2,5 milioi ekoizle jasotzen dituzten eragin positibo horietarako². Mundu-mailan, kalkulatzen da 5 milioi pertsona baino gehiagok onura lortzen dutela ekoizteko, merkaturatzeko eta kontsumitzeko modu alternatibo, kontziente eta kritiko horretatik.

Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundea (CECJ)

Plataforma bat da, Espainiako estatuan bidezko merkataritza loturik dauden eta inportazioko, azken salmentako eta/edo sentsibilizazioko jarduerak egiten dituzten 30 erakunde biltzen dituena. Haren lana bideratzen da sistema komertzial alternatibo eta solidario hau bultzatzera, eta kide diren erakundeei zerbitzua ematera. CECJ Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundeko (WFTO) kidea da.

CECJren helburua da gizarte-errealitatea zein nazioarteko merkataritzaren arauak eraldatzea, politika pu-

blikoetan eragina izanez, gizartea sentsibilizatuz eta mobilizatuz, eta bidezko merkataritzaren sektorea indartuz.

2013ko Bidezko Merkataritzaren Mundu Eguna

Koaderno hau CECJk Bidezko Merkataritzaren Mundu eguna ospatzeko prestatu dituen materialetako bat da; egun hori, hain zuzen ere, maiatzaren 11n ospatuko da aurten. 2013. urtean azukrea ardatz nagusitzat hartzea erabaki dugu, bidezko merkataritzako produktuen artean ezagunenetako, berezkoenetako eta kontsumituenetako bat Espainian.

Azukrearen historiak eta errealitateak oinarritzko zapora batera garamatzate (gozoa), bai eta loturik dituen balio positiboetara ere, baina, halaber, esklabotzaren garaietara, kanabera-plantazioetako lan-esplotaziora edota –gaur egun oraindik haren ekoizpen eta merkataritzaren ezaugarri nagusi– desberdintasunetara eta pobrezia mingotsera ere bagaramatzate. Joan den mendean pertsonen jan edanean energia-iturri garrantzitsutzat eta ohiturazkotzat sendotu zenetik, azukrearen ekoizpenak eta kontsumoak ez diote utzi era esponontzian hazteari. Baina, pentsatu al duzu inoiz nondik datorren azukrea? Nola lortzen da? Ba ote den azukre guztia berdina? Haren ekoizpena eta merkaturatzea zaporea bezain gozoak ote diren?

Koaderno honen helburua da argi egitea azukrearen mundu-merkatuan, ondasun hori ekoiztean eta banatzean gertatzen diren baldintzetan, eta kontsumitzen dugun moduetan. Produktu horren B aldea begiratuko dugu, sorotik azukre-ontziraino egiten duen bidea ibiliko dugu, kontsumo arduratsuaren inguruko beste eztabaida zabalago batzuei heltzeko baliatuko dugu aukera, eta, nola ez, bidezko merkataritzako azukreaz arituko gara: gure eguneroko bizitza gozago egiteko alternatiba erreal eta zehatza, besteren bizitza mingostu behar izan gabe. Irakurketa gozoa izan dadila!

1. CECJren beraren zenbatespenak, Fairtrade International-en eta WFTOren zenbakietan oinarriturik.

2. Fair Trade Advocacy Office-ren (FTAO) arabera: www.fairtrade-advocacy.org

1. Azukrearen historia laburra: helmuga gozoa bide mingots batean zehar

Produktu beraren jatorri eta etorki desberdinak

Azukre-kanaberagintzaren lehen berriak Ginea Berriko uharte urrunekoak dira; hain zuzen, handik zabaldu zen haren zuku gozoa edari gisa Hego-ekialdeko Asiako beste alde batzuetara. Indian azukre-kristalak lortzeko teknika garatu zen, hots, gaur egun ezagutzen eta kontsumitzen dugun azukre-forma. Handik, lehen aldiz iritsi ziren antzinako Europako zenbait tokitara, K.a. IV. mendearen inguruan, Alexandro Handiaren gudarostearen bitartez; izan ere, Asian egin zituzten espedizioetan “erleen beharrik gabe ezta ematen zuen landarea” aurkitu zuten. VIII. mende arte ez zen pixkanaka zabaldu azukre-merkataritza, Mediterraneoaren arroan bereziki, eta Iberiar penintsulan zehazki, arabiar herrien eskutik. Ekoizpena mundu-mailakoa bilakatu zen eta era esponenzialean hazi zen europarrak Ameriketara iritsi eta gero. Hor aurkitu zituzten baldintza aproposak klimaren nahiz lanaren aldetik (lan-indar esklaboa, bertakoa edo Afrikatik ekarrazia), uztak handitzeko eta gero eta handiagoa zen eskari bati erantzuteko.

Hasieran zen luxuzko produktua izatetik, azukrea pixkanaka masa-kontsumoko produktu bat bilakatu zen, gure

Egun, azukre-kanabera 100 herrialdetan baino gehiagotan hazten dute, 25 milioi hektarea hartzen dituzten plantazioetan. Espainiaren hedaduraren erdia!

Erremolatxatik datorren azukrea European kontsumitzen den azukrearen % 90 da ia

eguneroko jan-edanean egoten dena jada urte askoan. Egun, azukre-kanabera 100 herrialdetan baino gehiagotan hazten dute, toki intertropikal, eguzkitsu eta hezeetan egoten diren plantazioetan; guztira, 25 milioi hektarea dira. Espainiaren hedaduraren erdia! Kanaberaren zurtoina prentsatuta, zukua ateratzen da, eta hura kristaldu eta gero, azukre gordina sortzen da. Mundu guztian ekoizten den azukretik, % 80k jatorri horixe du, baina ez da jatorri bakarra: gainerakoa azukre-erremolatxatik ateratzen da, haren sustraitik, zehazki. Erremolatxa klima epel eta euritsuetan hazten da (edo eremu ureztatuetan, eta badago lehorreko barietateren bat ere).

Erremolatxaren azukrezko osagaia XVIII. mendean aurkitu zen European, eta azukrea egiteko lehen plantazioak handik mende bat igaro arte baino ez ziren agertu. Haren ekoizpena azkar zabaldu zen geroxeago, gerra napoleonikoez geroztik: Europa kontinentalaren eta Antillen arteko merkataritza ixtean, azken horietan europar metropoliak hornitzen zituzten kanabera-plantazioak zeudenez, kontinente zaharrean erremolatxa-uztak ugaritzea bultzatu zuen, barne-hornikuntza ziurtatzeko.

Gaur egun, erremolatxa-sail gehienak European, Errusian eta Ameriketako Estatu Batuetan daude, eta, batera, 5 milioi hektarea lur hartzen dituzte. Mundu-mailan guztien ekoizten dena izan arren, erremolatxatik ateratako azukrea oso ezagun izan beharko litzaiguke: European kontsumitzen den azukrearen % 90 da ia, nahiz eta garrantzia galtzen ari den, atzematen den joeraren arabera, aurrerago ikusiko dugunez.

Azukre-motak eta egiteko prozesuak

Kanabera-azukrea, erremolatxa-azukrea, integrala, findua, beltza, zuria, gorria, panela, mascobadoa... Egia da, ez da erraza orientatzea hainbeste terminoren artean. Merkatuan dugun azukre-mota bakoitzaren jatorriari nahiz propietateei buruz ugariak izaten dira bertsiokoak eta iritziak, eta askotan elkarren aurkakoak. Jarraian, oinarritzko kontzeptu batzuk argitzen saiatuko gara, geure burua hobeto kokatzeko.

Kanabera-azukrea: ebaki eta ordu gutxira, kanabera zatitu, eta errotetan prentsatzten da; prentsatztean ur beroa botatzen da, zuku lodi bat ateratzeko. Zuku hori garbitu egiten da (iragazketa), eta berotu (lurrunketa), ezpurutasunak pixkanaka baztertzeke, ura kentzeko eta jarabe bat lortzeko. Prozesu horren bidez, zukuan disolbaturiko azukrea sakarosa-kristal eran jalkitzen da.

Ore hori solidotu edo mamitu arte lehortzen uzten bada, **panela** lortzen da, Filipinetan **mascobadoa** ere deituta. Kristaltzea egosiz eta lurrunduz bakarrik lortzen da. Horrenbestez, eskuzko eta eskulangintzako izaera handia duen prozesu bat da, ia industrializatu gabea. Zentrifugatzen ez denez, horrelako azukreak bloke-itxura gordetzen du, bai eta inguruko melaza-geruza ere, eta azken horretan daude, hain zuzen, elikagai gehienak. Hala, panelak azukre-kanaberak dauzkan bitamina eta mineral guztiei eusten die.

Bai jatorrian egiten den azken kontsumorako, bai merkaturatzeko, birrindu egin ohi da, eta produktu pikordun bat lortzen da, beste azukre-mota ezagunagoen antzekoa, baina pikor hezeagoak, hain xeheak eta solteak ez diren pikorrak, dauzka, melaza-zatitxoekin batera. Eros-

ten ohi dugun tokietan egoten diren bidezko merkataritzako panela eta mascobadoak forma pikordun hori daukaten paketetan eskaintzen dira.

Prozesua hor utzi beharrean, ore hori zentrifugatzen baldin bada, kristalak melazatik bereiztea erdiesten da. Lehortu eta hoztu ondoren, **kanabera-azukre beltz integrala** lortzen da. Kristal-itxura handiagoa du, eta ia ez du panelaren bereizgarri den melaza-geruza hori. Apur bat mekanizatuagoa eta industria-lagoa den arren, posiblea eta ohikoa da (bereziki nekazaritza ekologikoaren eta bidezko merkataritzaren kasuan) azukre beltz integrala prozesu kimikorik erabili gabe lortzea.

Hala ere, merkatuan aurkitzen dugun kanabera-azukre gehiena ez da integrala. Behin zentrifugatuta, kristalak atzera ere disolbatzen dira uretan, aurreko prozesuaren zati bat errepikatzeke, eta horrela **kanabera-azukre findua** ateratzen da. Finketa prozesu kimiko bat da, azukre beltzari koloregai naturalak galarazten dizkiona, hau da, azukre integralaren kristalak inguratzen zuen melazamintza. Finketa horren bitartez, azukre integralak pixkanaka galtzen du kolore iluna, eta **azukre gorri edo zuria** lortzen da, finketa-mailaren arabera. Izan ere, denda, kafetegi eta supermerkatuetan ikusten dugun kafe beltzaren gehiena ez da inola ere integrala, azukre findua baizik, finketan galduriko melaza geroago gehituta; horrela, kolore eta zapore bereziak hartzen ditu berriz, baina ez jatorrizko propietateak.

Finketa-prozesua industrialia da, eta produktu kimikoak erabiltzen ditu; hartara, nekez sailka daiteke ekologikotzat. Dena den, aukera zabala dago erabil daitezkeen prozesu kimikoen artean, hain sintetikoak ez diren eta ingurumenari eta osasunari hainbeste erasotzen ez dietetik hasita kaltegarrieneraino, azken horietan genetikoki eraldaturiko organismoak ere (transgenikoak) egon daitezkeelarik.

Erremolatxa-azukrea: zuzenean finketatik lortzen da, eta zuria da beti. Gaur egun bai ereitea bai uzta biltzea mekanizaturik daude, eta, hortaz, ia ez dute langilerik behar. Oso zabalduta dago herbizidak botatzea, bai eta gero eta neurri handiagoan erabiltzea bariatate transgenikoak ere. Erremolatxa-fruitua lur-azpian hazten da. Heltzen denean, bildu eta fabrikara eramaten da; han, garbitu, eta xerra txiki eta mehetan moztzen da. Tanke handi batzuetan ur beroa botatzen zaie, azukre kontzentratua disolbatzearren. Ezpurutasunez betetako zuku bat lortzen da, eta hura iragazi, lurrundu eta zentrifugatu egiten da.

***Erremolatxa-azukrea
findua, industrialia
eta kimikoa da beti.
Kanabera-azukrea
integrala eta ekologikoa
izan daiteke***

Honaino, prozesua kanaberaren prozesuaren antzekoa da. Alabaina, panelarekin edo kanabera-azukre beltz integralarekin ez bezala, erremolatxa-azukrea egiteko prozesua ezin da hemen gelditu: lortzen den produktua ezin kontsumi daiteke egoera horretan, erremolatxa-melazak ez baitira onartzekoak elikagai gisa. Findu egin behar da, ahalik eta azukre gehiena ateratzeko, landarearen az-tarnarik gabe. Horregatik, esan dugunez, erremolatxa-azukrea beti da zuria eta findua, bigarren fase industrial eta kimikotik nahitaez igaro behar baitu.

Azukre ikusezina

Ez da kanabera- eta erremolatxa-ekoizpen guztia azukrea egiteko erabiltzen: beste elikagai batzuekin gertatzen den bezala, azken urteetan etanola, agroerregai bat (aurrerago arituko hara hari buruz), ekoizteko erabiltzen diren laboreen ehunekoak gora egin du. Haatik, kontsumitzen dugun azukre guztia ere ez zaigu heltzen forma ikusgai horretan. Geldiunea egin dezagun paradoxa bitxi batean, oso hurbilekoa izango baitzaigu, ziur aski. Espainian, azken urteetan, azukreari loturiko zuzeneko kontsumoa zein gastua pixkanaka eta neurri handian gutxitu

Azken bi hamarkadetan Espainiako azukre-kontsumoa % 20 baino gehiago hazi da



Kontsumitzen dugun azukretik, % 75 zeharkako bide batetik heltzen zaigu, eta oharkabean askotan

da etxeetan. Osasun-gomendioak eta “light produktuen sukarra” daude, neurri handi batean, kontsumo txikiago horren atzean.

“Azukre gutxiko” produktuek gero eta pisu handiagoa dute erosketa-saskietan, eta mahaiko azukreak, aldiz, duela gutxi arte etxean edo kafetegian izaten zuten nonahikotasuna kolokan dauka, ordezkotzaileen mesedetan. Datuek ohitura-aldaketa hori berresten dute: 1980ko hamarkadaren bukaeratik, mahaiko azukrearen batez besteko kontsumoa, biztanleko, erdira jaitzi da Espainian. Hala ere, azukrearen guztizko kontsumoa (eta, beraz, kontsumoa biztanleko) % 20 baino gehiago hazi zen Espainian denbora-tarte berean³. Nolatan da hori posible?

Erantzuna erraza da: azukrea gure bistatik desagertzen da, baina ez gure jan-edanetik. Egun, hartzen dugun azukretik, % 75 elikagai eraldatuetan sarturik heltzen zaigu, zeharkako bide hori, duela hogeitun urte, gure kontsumoaren erdia baino gutxiago zelarrik. Eta “elikagai eraldatuak” diogunean, ez gara halabeharrez gozoki eta pastelez ari, baizik eta, orobat, hestebe-teez, ozpinetakoez, esnekiez, freskagarriez edo salda prestatuez, eguneroko adibide gutxi batzuk bakarrik ematearren. Hala, bada, kontsumitzen dugun azukrea ez da bakarrik koxkorretan, zorrotxoetan edo pake-teetan aurkitzen ditugun kristalak, normalean “mahaiko azukrea” deritzoguna. Bost gramotik, gramo bakar baten forma baino ez da hori. Gaur egun, gehien-gehiena forma edo bide ikusezinen bitartez heltzen zaigu, eta oharkabean askotan.

3. Opciones (2009)

2. Azukrearen mundu-industria

Azukrearen industria sistema komertzial konplexu bat da gaur egun, eta han parte hartzen dutenak dira, beste eragile eta etapa askoren artean, nekazariak, errota, findegiak, esportazio-enpresak, inportazio-enpresak, denetariko banaketa-enpresak, araudiak, merkataritzako akordioak, enpresa transnazionalak eta finantza-merkatuak, azken horietan nazioarteko prezioa finkatzen delarik. Azukrearen eta haren deribatuen merkataritza globalizatuak 70.000 milioi dolar sortzen ditu urtean, eta Iparraldeko enpresa transnazional gutxi batzuek dute beretuta; haietako batzuek esklabotzaren garaietatik dihardutelarik. Harrigarria da prozesu hori guztia eta azken produktu bera bi lehengai bereizirik etorri ahal izatea eta atzean hain errealtate desberdinak edukitzea, ekoizteko nahiz merkaturatzeko baldintzen aldetik.

Azukrearen kontsumoa eta ekoizpena munduan

Kalkulatzen denez, munduan gaur egun azukrearen batez besteko kontsumoa urtean 24 kilogramo inguru da biztanleko. Herrialde aberastuetan, kontsumo hori 30 kilotik gorakoa da. Itxura guztien arabera, kopuru horiek handitzen jarraituko dute hurrengo urteetan, planetako beste alde batzuk –suspertzen ari diren Asiako herrialdeak bereziki (egun hango kontsumo-mailak ur-

tean 15-19 kilogramo artean daude biztanleko)– Mendebaldeko kontsumo-mailetara heldu ahala; era berean, aurreikusten da etanol egiteko azukre-eskaria ere handitu egingo dela. Ekoizpenari buruzko datuek gero eta handiagoa den eskari bati erantzuteko lasterketa horren berri ematen dute argiro.

2011ko uztak marka historikoak hautsi zituen, eta 170 milioi tonatik gorakoa izan zen, aurreko urtean baino % 10 gehiago eta ia % 30 hamarkada bat lehenago, bakarrik, mundu osoan zegoen ekoizpen-mailaren gainera. Azukrearen Nazioarteko Erakundeak (ISO) kalkulatu duenez, azukre-kontsumo agregatua munduan 201 milioi tona baino gehiago izango da 2020. urtean, eta, horrenbestez, batez besteko hazkundeak % 2 izango da urtean une hori arte. Hazkundearen erdia baino gehiago, hain zuzen, Asian gertatuko da.


Azken uztan izandako hazkundearekin, azukre-industria soberakinduna izan da berriro 2011n, zenbait urtetan defizita izan ondoren. Munduko ekoizpenak urte horretan 10 milioi tonatan gairitu zuen kontsumo erreala, pertsonentzat izan zein etanola ekoizteko izan. Soberakin-marka hori gehiturik, 2012. urtearen hasieran mundu osoan metatutako azukre-stocka ia 80 milioi tona zen, munduko urteko kontsumoaren erdiari erantzuteko adina, hain zuzen. Azukre-stocken gehikuntza hori dela eta, aurreikusten da nazioarteko prezioak gutxitu egingo direla hurrengo urteetan.

Prezioa: espekulaziozko beste errusiar mendi bat

Azukrearen nazioarteko prezioa, esportazio-inportazioerako erabiltzen dena, nazioarteko finantza-merkatuetan finkatzen da. Etorkizuneko uzten salerosketarako hiri nagusiak New Yorkeko burtsa (azukre gordina salerosten da –finde gabekoa– eta AEBko dollarraren zentimotan neurtzen da, libra azukrea) eta Londresko burtsa (han kotizatzen duen produktua azukre zuria da, eta AEBko dolarretan neurtzen da, tonako) dira.


Azukrearen mundu-merkataritzak 70.000 milioi dolar sortzen ditu urtean, eta enpresa transnazional gutxi batzuek dute beretuta

Munduko azukre-ekoizpena
2001-2011. Tonak (milioika)



Iturria: geuk egina, FAOSTATen oinarriturik

Azukrearen nazioarteko prezioa Londresko eta New Yorkeko burtsetan
1989-2012



Iturria: geuk egina, Asocaña-n oinarriturik

Erreferentziatzen erabiltzen dugun burtsa-adierazlea gorabehera, azken hamarkadetakoa bilakaerari begiratze hutsarekin joera bera agertzen zaigu: merkatu globalizatuetan nonahikoa den errusiar mendi bereizgarria. Azukrearen nazioarteko prezioa, 2004tik 2011ra doan tartean bakarrik, hirukoiztu egin zen, urte arteko igoera eta jaitsiera etengabe eta bat-batekoekin. Gorabehera bortitz horiek hiletik hilerara era gertatzen dira. Har dezagun 2011. urtea adibide: urtearen hasierarekin bat, azukrearen historian izan den hileko preziorik handiena ezarri zen, eta ia % 50 amildu zen handik lau hilabetera bakarrik; gero, atzera ere gora egin zuen.

Zalantzarik gabe, prezioen aldakuntza horien atzean hainbat faktore daude, hala nola uza txarrak, aurkako klima-faktoreak, izurriteak edo nazioarteko edo eskualdeko ekonomia-krisien inpaktua (halakoek nazioarteko eskaria edo ekoizteko inbertsioak gutxitzen dituzte). Baina ez dira horiek elementu bakarrik, ezta nagusiak ere. Badira bi faktore, azken urteetan azukrearen ekoizpenaren zein prezioen aldakuntzak eragin izan dituztenak: halako laboreen eskaria gero eta handiagoa izatea agroerregaiak egiteko eta, batez ere, etorkizuneko merkatuetako finantza-espekulazioa. Eragile gutxi batzuek –azukre-kanabera plantazio bat edo erremolatxa-soro bat inoiz zapaldu gabe, ziur aski– beren inbertsioekin nekazariak ekoizpenaren truke jasotzen duten erosketa-prezioan eragiten dute, eta horrek haien bizi-mailak eta etorkizuneko uzten bolumena mugatzen ditu. Etorkizuneko prezio hobeen zain biltegitatuta dauden stock eskergak, lehen aipatu ditugunak, espekulaziozko praktika horien islarik onena dira.

A priori, pentsa genezake azkenaldian gertatutako prezio-igoera hori onuragarria dela ekoizleentzat. Baietz erantzun behar da, baina asko jarrita, ordea. Gainerako oinarriko produktuekin ere gertatu ohienez, halakoak hazten dituzten pertsonak azken prezioaren ehuneko txiki bat baino ez dute jasotzen. Prezio hori nazioarteko

Azukrearen prezioa nazioarteko merkatuetan finkatzen da. Hazleek ehuneko txiki bat baino ez dute jasotzen

merkatuan gehitzen denean, haientzat berri ona da, erlatiboki, baina hegakortasun horrek antzera jaisteko arriskua ere ezkututzen du. Une jakin batean dagoen kointazioa gorabehera, haren ezegonkortasuna da faktore erabakigarria.

Nekazariarentzat –beren jarduera eta bizimodua uzten garai eta epe naturaletan oinarritzen dituzte eta– prezioen mugimendu espasmodiko horiek jasanezinak dira zeharo. Hain egoera ezegonkorren aurrean, ia ezinezko bihurtzen da etorkizunerako aurreikuspenak egitea eta merkataritza-harremanetan nolabaiteko iraunkortasuna ziurtatzea, edota plantazioaren beraren iraunkortasuna. Baina hegakortasun bera oso epe laburretan dihardutenen interesekoa eta onurarakoa da: burtsan etorkizuneko azukre-uztak salerosten ibiltzen diren espekulatuzaileak dira halakoak, beste edozein aktiboren modukoa balitz bezala.

Non ekoizten den


Munduko ekoizpenaren bi herenek (% 66,1) sei eragile dute jatorri: Brasil, India, Europar Batasuna, Txina, Thailandia eta Ameriketako Estatu Batuak. Brasil eta India, bakarrik, munduan ekoizten diren hiru kilo azukretik kilo baten ekoizleak dira. Alabaina, munduko ekoizpenetik, % 30 ozta bideratzen da nazioarteko merkatura: ekoizten duten herrialdeetan kontsumitzen da gehiena, nahiz eta joerak aditzera ematen duen esportazioak pixkanaka hazten ari direla.

Ekoizpen handiko herrialde jakin batzuei, Brasili bereziki, “low-cost azukre-esportatuzaileak” esaten zaie, munduan dagoen gero eta eskari handiagoari erantzuteko duten ahalmenagatik, kasu gehienetan kanabera-plantazio hedatsu batzuetako lan-kostu eta ingurumen-kostu apalak bereizgarritzat dituen ekoizpen bati esker. Joera nagusi horren aurrean, urte batzuetatik hona alternatiba iraunkoragoak, ingurumena gehiago errespetatzen duten alternatiba batzuk, sortu izan dira, batzuetan lan-arloko eta gizarte-bidezketasuneko irizpideak ere hartzen dituztenak.

Kasu hori da, esate baterako, Paraguaikoa. Beren eskualdeko low-cost ekoizle handiekin lehiatzeko ezintasunaz jabetu ondoren, kostuen aldetik zeuden alde handiak zirela eta, herrialdeko hainbat talde ekoizle bi faktore bereizgarri aprobeztatu zituzten –kanabera-plantazio txikiz osatutako ekoizpen-egitura bat eta halakoetan agrokimiko gutxi erabiltzea– azukre ekologikoa eskala handian ekoiztearen aldeko apustua egin zuen lehen herrialdea bihurtzeko, 1990ko hamarkadaren bukaeratik.

Azukre gehien ekoizten dituzten herrialde eta eskualdeak

2011, % munduko ekoizpen guztitik



Iturria: geuk egina, FAOSTATen oinarriturik

Gaur egun, urtean 200.000 tona bideratzen ditu Paraguaiak Europar Batasuneko, AEBko, Australiako edo Peruko merkatuetara, eta munduko liderra da azukre ekologikoaren esportazioen alorrean. Hamarkada batean baino gutxiagoan, 10 aldiz handitu du azukre-mota horren ekoizpena, urteko batez besteko gehikuntza % 25 izan delarik. Eta 2015erako bolumen hori bikoiztea espero du. Egun, Paraguain ekoizten den azukretik, % 60 ekologikoa da. Aldi berean, azukre ekologiko horri bidezko merkataritzako irizpideak eta ziurtagiriak gehitu zaizkio pixkanaka. Paraguai, gaurko egunean, mundu-mailako erreferentzia-puntua da bidezko merkataritzako azukrea egiten eta esportatzen: munduko ekoizpenaren heren bat, gutxi gorabehera, haren lurretan hazten da, bai eta Ameriketako Estatu Batuetan kontsumitzen den mota horretako azukrearen erdia baino gehiago ere.

Elikagaia ala agroerregai?

Lehen aipatu dugunez, beste elikagai batzuekin gertatzen den bezala, azukrearen prezioa eta ekoizpena gero eta neurri handiagoan daude pertsonen kontsumorako ez den eskari baten mende. Landare-lehengai, nekazarit-

zako laborez batik bat, erregai likidoak gero eta gehiago egiteaz ari gara. Gehien erabiltzen diren agroerregaiak (edo bioerregaiak) bioetanola eta biodiesela dira. Bioetanola (edo, besterik gabe, etanola) hainbat landaretatik ateratako azukreen hartidura alkoholikotik lortzen da; landare horien artean azukre-kanabera, erremolatxa edo zereal zenbait (artoa, manioka) daude. Biodiesela landare-olioekin egiten da; erabilitakoak edo erabili gabeakoak izan daitezke, eta koltza, soja, errizinoa edo palma izaten dira olio horien jatorrizko laboreak.

Ingurumenari loturiko arrazoiak direla edo petrolioaren kanpo-mendetasuna gutxitzea dela, erregai fosilak ordeztuko energia horiek gero eta gehiago erabiltzeak, lehen batean, berri ona izan liteke, berotegi-efektuko gasen isuria murriztuko bailitzateke horrekin batera. Alabaina, ondoriozko efektu negatiboak ezin zaie ez ikusi egin. Halako produktuen eskaria handiagoa izatean, uztek handiagoak izan behar dute, eta monolaborantzara eta barietate emankorrenetara jo behar da, nekazaritza-dibertsitatearen kaltetan. Esportatzeko joera gero eta handiagoa izateak nazioarteko merkatuaren mende neurri handiagoan egotea eragiten du, dagoeneko finantza-espekulazioaren azpian egonda, gorago aztertu diren nazioarteko prezioen aldakuntza gogorak direla medio.

Kanabera- edo erremolatxa-uztak agroerregaitzat erabili daitezkeen beste labore batzuekin lehiari sartzen dira merkatu globalera, bai eta erregai fosilak egiteko erabiltzen diren beste lehengai batzuekin lehiari ere. Horrela, esaterako, petrolioaren prezioa igoz gero (eta, ondorioz, gasolinarena ere bai) etanolaren eskariak gora egiten du, ordeztuko eskuragarriena izanik; horrek, era berean, azukrearen prezioa ere igoarazten du azkenean,

Egun agroerregaiak duten goraldiak arrisku larriak dakartza elikagaien segurtasunerako, biodibertsitaterako eta uzten iraunkortasunerako

eskaintza zurrin batetik gero eta handiagoa den eskari bati erantzuteko ezintasunagatik (ezin da eskaintza gehitu beste uzta batzuk erein arte, eta horretarako lur gehiago hartu behar dira).

Landare-labore jangarriak agroerregaietarako erabiltzeak baditu, beraz, eragozpen eta arrisku handiak. Egun, elikagaien eta erregaien ekoizpenen arteko lehia itzela ikusten ari gara, eta horren emaitza da lehenen, elikagaien, prezioak gora egitea. Atzera ere, diagnostiko bera dugu: azukreaki dagokionez, hori positiboa izan liteke a priori azukre-kanabera eta erremolatxa ekoizten dutenentzat. Alabaina, azukrearen mundu-merkatuaren egitura oligopoliko eta desberdintasunezkoak eragiten du prezioen igoerak sektorea kontrolatzen duten enpresentzat baino ez ekartzea etekin handiagoak, arriskuak eta inpaktu kaltegarriak landatzeaz eta produktua egiteaz arduratzen direnentzat utzirik.

Begirada kritikoa kontsumo arduratsutik

Agroerregaien ekoizpenak sortzen duen arraste-efektua albo batera utzita, eta arreta elikagai gisa erabiltzeko baino ez den azukrearen eskarian jarrita, kontsumo arduratsu eta kritikoa kokatzen den ikuspegi batek kontsumoaren gehitze esponentzialak eta ondoriozko ekoizpen handiagoak dakartzaten arriskueta miatzera bultzatzen gaitu. Kausa ekonomikoak gorabehera (kontsumo-maila handiagoa izateko moduko erosahalenaren gehikuntza, beti ongi hartua), moden, publizitatearen eta gainerako joera homogeneizatzaileak nabarmendu beharko lirarteke, egungo prozesu globalizatzailearen bere-berezkoak. Kontsumoko gustuak, zapoak, ohiturak eta formak ere elkartzten eta batzen dira duela gutxi arte lotu gabeko planetako eskualde batzuen eta besteen artean.

Esportaziorako monolaborantzak mendetasun-sorburu nahiz segurtasun ekonomikorik ezaren sorburu dira

Oinarrizko elikagai gehienekin gertatzen den bezala, azukre-eskaria malguagoa eta elastikoagoa da plantazio eta uzta berrien denbora biologikoen mende dagoen eskaintza bat baino. Eskariari azkar eta neurri berean erantzutearren, bariedade emankorrenak lehenesten dira, eta monolaborantzaren jardun dadin eta pestizida bortitzenak erabil daitezten –baita transgenikoak ere– sustatzen da. Hainbat ondorio daude, gogorrak. Landare beraren bariedade jakin batzuk nahiz beste labore eta nekazaritza-ekonomiako beste jarduera batzuk pixkanaka bazter uztea zuzeneko mehatxua da biodibertsitaterako eta landa-eremuko iraunkortasunerako, landare-espezieak desagertzeko arrisku nabariarekin. Produktu kimiko gehiegi erabiltzeak eta genetikoki eraldaturiko bariedadetara jotzeak kolokan jartzen dute landa-eremuaren eta ingurumenaren iraunkortasun ekologikoa, eta mehatxua dira plantazioen inguruko edozein bizi-formarentzat, kontsumitzaileen osasunarentzat eta planetarentzat, oro har, epe ertainera.

Laburbilduz, esportaziorako monolaborantzak mendetasun ekonomikoaren sorburu dira, erdigunearen eta periferiaren arteko merkataritza-harreman bidegabeak –kolonien garaietatik heredatuak– gertatu diren mendeek erakusten digutenez. Mendetasun horrek baditu hainbat aurpegi, baina ia beti paraleloan:

- moda global espasmodiko batzuen araberako eskari aldakorra
- nazioarteko prezioak finkatzea laboreen errealitatearekin loturirik ez duten eta espekulaziozko mugimendu etengabeen mende dauden finantza-merkatu batzuetan
- faktore klimatiko eta biologikoen mende dagoen ekoizpen bat
- elikagaien segurtasuna eta elikagai-subiranotasuna ahulduta
- laborantza-eremu berrien eta zaharren arteko lehia gorantz joatea
- Ekoizpen-baliabideen oligopoliozko kontzentrazioarako joera etengabea, merkatua eragile gutxi batzuetara murrizturik, eta bazterrera utzirik ekoizpen-unitate txikiak, familia-mailako laborantza, tokian tokiko nekazaritza-praktikak, teknika ekologikoak, tokiko bariedade genetikokoak, ingurumen-iraunkortasuna eta garapen endogenoa.

Europar Batasunaren jokabide bikoitz mingotsa

Europar Batasunaren kasuari bereziki begiratu behar zaio, hurbil dugulako eta bidegabekeria komertzialeko adibide argienetako bat delako. Kalkulatzan denez, Europan erremolatxatik kilo bat azukre ekoiztea bi aldiz gehiago kostatzen da, alde intertropikaletan kanaberatik ekoiztea baino. Halere, EBk garrantzizko ekoizlea izaten jarraitzen du mundu-mailan, eta ia era eskusiboan du beretzat Europako merkatua. Nolatan da hori posible merkatu globalizatu eta ustez lehian oinarritutako batean? Erantzuna bikoitza da, baina erraza ere bai; eta egun munduko merkataritza gidatzen dituzten arau eta praktika bidegabeak ulertzeko funtsezko gako bat ezkututzen du.

Batetik, NPBren bidez (nekazaritzako politika bateratua), EBk diruz laguntzen dio, gehieneko kuota bateraino, Europako erremolatxagintzatik datorren azukre-ekoizpenari. Europar Batasuneko ekoizleek kilo bat azukreko diru-laguntza bat jasotzen dute, eta nazioarteko merkaturan ordaintzen den prezioaren hirukoitza ere izan daiteke. Azukre hori, ordea, nazioarteko erreferentziako prezio horretan saltzen da, eta hura, hain zuzen, txikiagoa eta lehiakorragoa da. Ekoizpen-kostutik behera saltzeari dumpinga esaten zaio, eta legez kanpoko praktika komertziala da, eta guztiz bidegabekia, Hegoaldeko gainerrako ekoizleak ekoizpen-kostuak are gehiago txikiagotzera behartzen baititu (soldatak, ingurumen-irizpideak, laneko segurtasuna), Europako diruz lagundutako prezio artifizialki txikiakin lehiatuko badira.

Beste alde batetik, Europar Batasunak, merkataritzako kanpo-politikekin, EBtik kanpoko produktuei sartzeko hesiak ezartzen dizkie, haren barne-ekoizpenari lehia egin diezaioketenean. Europako merkatura sartu ahal izateko, EBtik kanpoko azukreak EBko edozein estaturen aduanan ordaintzen dituen muga-zergak produktuaren esportazio-preziora halako hiru ere izan daitezke. Hain zuzen, kalkulatu denez, Europatik kanpo ekoiztutako azukrea ordaintzen dugunean, ordaintzen dugun azken prezioetik, % 50 muga-zergak ordaintzeko da.

Neurri protekzionista hori –haren legezketasunaren eta bidezketasunaren inguruko iritziak iritzi– kontrajarri egiten zaie, ordea, EBk berak Hegoaldeko herrialdeekin aldi berean egiten dituen negoziazioei, herrialdeok aldebiko merkataritza-akordioak izenpe ditzaten, tokiko merkatuak Europako enpresa transnazionaleri eta diruz lagundutako beraien produktuei irekitze aldera. EBk uko egin nahi ez dien hesi, kuota eta muga-zerba berberak kentzeko eskatzen die herrialde horiei. Horrela, EBk bere barne-

merkatua itxirik edukitzen du, munduaren gainerakoa bere diruz lagundutako azukrearekin gainezka betetzen duen bitartean. Jokabide bikoitz hori bidegabekia da, bai eta iraunkortasunik gabekoa ere, hala Europatik kanpoko ekoizleentzat nola diru-laguntza horiek ordaintzen dituzten zergadunentzat; azken horiek gainera, sektoreko enpresa handiek beretzatutako nekazaritza-industriako eredu bat mantentzen dute horrela, plantazio txiki eta ertainen, familia-ekonomiaren eta baserritar nekazaritzaren kalterako, hots, duela urte batzuk Europako landaremuaren ezaugarri nagusia zirenen kalterako.

Errealitate bidegabe hori sistematikoki salatu izan dute Hegoaldeko herrialde ekoizleek nahiz mundu osoko hainbat erakunde sozialek Munduko Merkataritza Antolakundearen aurrean. Erantzun gisa jasotzen duten isiltasunaren oso bestelakoa da, ordea, Iparraldeko potentzia komertzialen eskaeren aurrean erakusten den erreakzio azkarra. Erakusgarri ona da hori, ustez multilateral den organo batean, herrialde baten ahotsa balio duenez, hitz egiten duena nor den.

Aurreko guztiagatik ere, urte batzuk badira kontinente zaharrear erremolatxa-plantazioak gutxitzen ari direla: erdira, batez beste, Europa guztian, eta hiru aldiz baino gehiago Espainian, zehazki. Era berean, jatorria Europan duen azukreak gure erosketa-saskian duen pisua galtzen ari da pixkanaka, azukre-transnazionalak ekoizpena Hegoaldeko herrialdeetara deskokatu ahala, kostuak txikiagoak direla baliatuz (lanaren, ingurumenaren, administrazioaren zein zergen aldetik), diru-laguntzak baino are abantailatsuagoak; azken horiei dagokienez, oraindik indarrean diren arren, zalantza handia dago haien etorkizunaren inguruan.

EBk bere barneko azukre-merkatua itxirik edukitzen du, munduaren gainerakoa bere diruz lagundutako azukrearekin gainezka betetzen duen bitartean

Aurreikusten denez, azukrearen prezioa hurrengo urteetan handia izango den arren, (gaur egun baino zertxobait txikiagoa, halere, stocken metaketagatik), EBn egiten den erremolatxa-azukrearen prezioaz oso azpitik egoten jarraituko du edonola ere. Hau da, lehia-merkatu batean izan beharko lukeen prezio erreala azpitik: ekoizpen-kostuen arabera eta diru-laguntzarik jaso gabe. Europako barne-ekoizpenaren etorkizuna, kanpoan izango duen posizionamendua, eta kontsumituko den azukremota zenbait faktoreren mende egongo dira:

- Munduko Merkataritza Antolakundearen (MMA) esparruan azkenean lortzen diren akordioak
- EB gaur egun Hegoaldeko hainbat herrialderekin negoziatzen ari den merkataritza akordioen eboluzioa (oinarrizko zenbait produkturen kuota komertzialak barne hartzen dituzte, azukrearena kasu, edo industria horren liberalizazioa)
- Nekazaritzako Politika Bateratuaren (NPB) erreforma

Azken horri dagokionez, azken urteetan Europar Batasunak pauso batzuk eman ditu Europako azukre-ekoizpena murrizteko, prezio ofizialei jaitiera txikiak eginez, kuota murriztuz, eta labore horiek uzteko pizgarriak emanez. Horren ondorioz, nabarmen gutxitu dira erremolatxa-lurren azalera zein erremolatxa hazten eta prozesatzen diharduten fabriketan eta pertsonen kopurua.

Itxura guztien arabera, kanabera-azukrearen inportazioek gora egingo dute, beste herrialde batzuetatik EBra. Izan ere, aurreikusten da urte gutxiren buruan Europako merkaturak izango dela produktu horren inportatzaile nagusia munduan. Hartara, une erabakigarrian gaude eragina izateko Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko merkataritzako azukre hori —laster gure jan-edanaren gozagarri-ekoizteko eta merkaturatzeko baldintzetan⁴.

Azukre-ekoizpena Espainian

Europaren barruan, azukre-kanabera plantazioak landu ziren aurreneko tokietakoa, bai eta toki bakanetakoa ere, izan zen Espainia, Afrikako iparraldeko herriak iritsi ondoren. Handik, Latinoamerikarako jauzia egin zuen XV. mendean, nahiz eta, dena dela, Andaluzian eta Kanarietan plantazio batzuek iraun zuten: duela gutxi arte,

EBk Espainiari azukre-ekoizpenean esleitu dion kuota barne-eskariaren erdiari baino gutxiagori erantzuten dio

Europako lurretan kanabera-azukrea ekoizti izanaren lekukotasuna ematen zuten aztarna bakarrak. Azken errota orain urte batzuk geratu ziren bertan behera, eta, haiekin batera, azukre-industriarako kanabera-plantazioak ere desagertu ziren.

Aitzitik, erremolatxa-azukrearen ekoizpena nabarmen izan da XIX. mendearen bukaeran lehen fabrikak instalatu zirenetik eta industriarako labore-lurak zabaldu zirenetik. Duela hamarkada bat arte, Espainia kontinenteko ekoizle nagusietako bat zen. Hala ere, Europako nekazaritza-politikan azukreari buruz duela gutxi izan diren aldaketek baimenduriko —eta EBk diruz lagunduriko— labore-kuota erdira murriztu dute Espainiako nekazaritzarako. Ondorioz, erremolatxa-lurren azalera nahiz azukre-fabriketan kopurua ere antzera murriztu dira. Horrez gain, EB guztian, hektareako errendimendurik handiena izan arren, azken urteetan aplikatutako hobekuntza teknikoengatik, ekoizpen-kostuek handiagoak izaten jarraitzen dute, konparazioz.

Gaur egun, EBk azukre-ekoizpenean Espainiari esleitu dion kuota 500.000 tona inguru da. Barne-ekoizpen horrek barne-eskariaren erdiari baino gutxiagori erantzuten dio, eskari hori 1,3 milioi tona baita, gutxi gorabehera. Geratzen den aldea kanpotik ekartzen den azukrearekin estaltzen da, Europako erremolatxa-azukrearekin zein EBtik kanpoko kanabera-azukrearekin. Eskari agregatu horren kopuru zorabigarri horiek gehiago adierazten digute lurmailara eramaten ditugunean: Espainian, batez besteko kontsumoa urtean 28 kilogramo da biztanleko. Alabaina, biztanleko erosten den mahaiko azukrearen batez bestekoa 4 kilogramo da ozta. Gainerakoa beste bide batzuetatik heltzen da, hartzen ditugun janari edo edarien barruan, edo elikatzeke ez diren beste modu batzuetan erabiltzen da.

4. Informazio gehiago izateko Europar Batasunak gaur egun garapen-bideko hainbat herrialderekin negoziatzen ari den merkataritza-akordioei buruz, globalizazio komertzialaren funtzionamenduari buruz, MMAK eta antzeko erakundeek jokatzen duten rolari buruz, eta CEJk horren gainean duen jarrerari buruz, ondorengo estekan begiratzeko gomendatzen dugu: comerciojusto.org/wp-content/uploads/2011/08/Acuerdos-Comerciales-UE-completo.pdf

Tokikoa, ekologikoa, bidezkoa... egungo debate bat lur-mailara eramaten

Zaila litzateke gaur egun aurkitzea, kontsumo arduratsutzat ulertzen duguna definitzerakoan, hura eratzten duten irizpideei buruzko nahiz halakoek garrantziaren arabera duten lehentasunari buruzko adostasuna. Oso litekeena da ia proposamen guztietan honako hiru hauek agertzea: tokikoa, ekologikoa eta bidezkoa. Pertsona batzuen aburuz, hiru irizpide horiek konbinatu beharko liriateke; beste batzuen ustez, garrantziaren arabera ordena litezke. Alabaina, formulazio idealak gorabehera, sarritan ikusten dugu errealitateak posibleen unibertsoa mugatu egiten duela. Azukreari dagokionez, “errealitatea” egungo sistema komertzial eta ekonomikoari, klima- eta ingurumen-faktoreei, eta nekazaritzaren eta biologiaren aldetiko baldintzatzaileei deritzegu. Haietako lehenari, sistema komertzialari, eragin ahal eta behar diogu; gainerakoekin hobe ez saiatzea batzuetan, planetaren onerako. Ikus dezagun zein neurritan atxiki dakizkiokeen gaur egun eskura izaten ditugun azukre-motak kontsumo arduratsuko eraren bati.

Europako azukrea, teorian, “tokikoa” da. Dena dela, garrantzizko ñabardura batzuk egin daitezke. Lehenik eta behin, erremolatxa-azukrea baino ez litzateke tokikoa, eta ez beste kontinente batzuetan hazi, gordirik inportatu eta Europan fintzen eta ontziratzen den azukrea. Azken kasu horretan, prozesatzea eta azken ontziratzea baino ez liriateke “tokikoak”, ustezko zirkuitu laburrak ezabatu nahi zuen aztarna ekologikoa berrezarritu. Zirkuitu labur hori, gehienetan, ez litzateke estatu-esparrura ere mugatuko, Europar Batasun guztira zabaldu beharko baillizateke; horrek tokiko izaera erlatibizatu egingo luke berriz.

Beste alde batetik, azukrea egitean erabiltzen diren prozesuen ondorioz, erremolatxa-azukrearen ekoizpena oso kutsagarria da, ez da ekologikoa, eta gero eta transgeniko gehiago ditu. Ez dakigu Europarako datu zehatza, baina, kalkulatzan denez, gaur egun Ameriketako Estatu Batuetan ekoizten den ia erremolatxa-azukre guztia transgenikoa da jada.

Duela gutxi arte, azukre-mota hori egitea gutxi-asko “bidezkoa” zela planteatu zitekeen agian, edo, bederen, iriz-

pide sozialak nahiz tokiko ekoizpen-egiturari atxikitzeko irizpideak dituzten enpresa txiki eta ertainek parte hartzen zutela. Alabaina, ikusi dugunez, gero eta bazterrago dauden salbuespen txiki batzuk gorabehera, nazioarteko kapitalismoaren berezko metatze-dinamikek merkatu oligarkiko bat eratu dute pixkanaka, enpresa transnazional gutxi batzuek mendean daukatena; hain zuzen, azken horientzat zentzu bera dute azukrea ekoizteak, etanola fabrikatzeak edo etorkizuneko finantza-merkatuetan lehengaiekin espekulatzeak. “Nekazaririk gabeko nekazaritza-industria” horrek eta Europar Batasunaren kanpo-politika komertziala gidatzen duen jokabide bikoitz bidegabeak (txanpon beraren bi aldeak) tokiko izaeraren aldeko argudioa hutsean uzten dute, edozein osagarri ekologiko eta/edo bidezkorik gabe ia.

Esan nahi du horrek, bada, kanabera-azukrea erabat ona dela? Inondik inora ez. Monolaborantzako plantazio hedatsuak eta hango lan-indar esplotatu ugaria dira haren ekoizpenaren ezaugarri nagusiak. Baina, erremolatxa-azukrea ez bezala, gero eta ohikoagoa da nekazaritza ekologikoko eta, neurri txikiagoan, bidezko merkataritzako kanabera-azukrea topatzea. Dena dela, ziurtagiri ekologikoetarako baldintzak oso gogorak izan arren, berme horrek ez du eragozten ingurumenari loturik ez dauden gainerako irizpideen aldetik ekoizpena eta merkaturatzea ohiko merkataritzan bezain bidegabeak izan daitezen. Horregatik, ekologikoa izateaz gain, bidezko merkataritzako azukrea ere izan behar du.

Bidezko merkataritzako azukreak soldata duin eta berdinak ziurtatzen ditu, nola gizonezkoentzat, hala emakumezkoentzat, bai eta lan-esplotaziorik egon ez dadin ere, haurrena bereziki, halakoa egoten baita mota horretako plantazioetan; halaber, ziurtatzen du ekoizleentzat erosketa-prezioak bidezkoak izan daitezen, transgenikoak eta produktu kimiko gogorak erabil ez daitezen laborantzetan, Hegoaldeko ekoizleen eta Iparraldeko inportatzaileen arteko merkataritza-harremanak iraunkorrak izan daitezen, uztak aurrefinantzatzea, eta biodibertsitatea errespetatzea. Azkenik, labore autoktonoak eta nekazarien autoantolaketa demokratikoko erak bermatzen

ditu, sistema komertzial konplexu eta bidegabe honetan nekazariok inoiz galdu behar izan ez zituzten protagonismoa eta duintasuna berreskuraturik.

Horrez gain, bidezko merkataritzako azukrea, gehiengutan, nekazaritza ekologikotik dator. Kooperatiba horietako askok badute, izan ere, izaera hori bermatzen duen ziurtagiriren bat. Eta hori hala ez denean, ziurtagiria lortzeak dakarren kostu ekonomiko eta administratibo-gatik gertatu ohi da. Berariazko ziurtagiria izan zein ez, bidezko merkataritzako azukrea ingurumena errespetatzen duten laborantzetatik dator beti, hori izanik bidezko merkataritzako produktu guztien funtsezko printzipio bat, guztiek partekatzen dutena.

Alternatiba erreala eta gero eta zabalduagoa

Bidezko merkataritzako azukrea urteak daramatza hazten, pixkanaka baina sendotasunez. 2011. urtean, mundu osoan, 140.000 tona baino gehiago kanabera-azukre saldu ziren gizarte- eta ingurumen-irizpideei jarraituz, aurreko urtean baino % 9 gehiago⁵. Mundu-mailan duen garrantzia apala da oraindik (munduan ekoizten diren mila kilo azukretik bakarria da bidezko merkataritzakoa), baina aurrera jarraitzen du. Badira duela urte gutxi batzuk pentsaezinak ziren barneratze-maila zenbaiten kasuak: egun, Erresuma Batuko kafetegietan dauden azukre-zorrotxoek % 40 bidezko merkataritzakoak dira.

Jatorriari begiratzen badiogu, Fairtrade International⁶ delakoan bakarrik, 2012. urtearen hasieran bidezko merkataritzako azukrea ekoizten zuten 69 erakunde zenbatzen ziren, 15 herrialdetan, 40.000 pertsonari lana emanda, gutxi gorabehera. Herrialde ekoizle nagusiak Paraguai eta, alde handiz atzean, Kuba, India, Filipinak eta Costa Rica dira.


Espanian, bidezko merkataritzako azukrearen banaketa, 2011. urtean, mila tonatik gorakoa izan zen lehen aldiz (1.015 zehazki). Bidezko merkataritzako gozokien salmentek –barne hartuta bai mahaiko azukrea bai egiteko prozesuan edo edukian azukrea daukaten beste produktu batzuk (galletak, kakaoa, zukuak edo karameluak)– 2011. urtean bederatzi milioi euroko baino zerbait gehiagoko fakturazio bat izan zuten, aurreko urtean baino % 77 gehiago. Hori izan zen, hain zuzen, gehien hazi zen produktutaldea. Egun, gozokiek Espainiako bidezko merkataritzako fakturazio guztiaren (26 milioi euro) heren bat eragiten

dute (% 34,8), eta bigarren produktu-talde gisa sendotu dira salduenen artean, kafearen atzetik⁷.

Espainiako merkaturan egun dauden bidezko merkataritzako azukre-motak Costa Ricatik, Ekuadorretik, Paraguitik, Maurizio uharteetatik eta Filipinetatik datoz. Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundeko kide diren hamar inportazio enpresetatik, bederatzik jatorrian lan egiten dute azukre-ekoizleekin. Erakunde ekoizle horiei buruz gehiago jakin nahi baduzu, begiratu koaderno honetako azken atala: *Nork ekoizten du bidezko merkataritzako azukrea?*

Hainbat urtetatik hona aurrean duguna, beraz, bidezko merkataritzako azukrearen pixkanakako hazkundera da, baina ezin geldituzkoa, merkataritzaren aldetik nahiz gizarteko ezarpenaren aldetik, hala Espainian nola munduko gainerakoan. Bide horri eustea eta egiazko merkataritza-alternatibatzat sendotzea –kontsumitzaile arduratsuentzat helmugan eta ekoizleentzat jatorrian– gure kontzientzia-hartzearen mende dago, neurri handi batean. Kontsumitzen dugunaren B aldea bilatze soila, etiketa arakatu eta erosten dugunaren osagaiak, jatorria eta ekoizteko baldintzak ezaugtez, funtsezko pausoa da kontsumo kritiko eta arduratsua aurrera eramateko, bai eta pauso erabakigarria ere milioika pertsonaren bizi-baldintzak hobetzen laguntzeko. Gure esku dago azukrearen ekoizpena eta merkaturatzea zaporea bezain gozoak izan daitezen.

Bidezko merkataritzako produktuen eta gozokien guztizko salmentak Espainian 2010-2011. Euroak, milioika



Iturria: geuk egina CECJren *El Comercio Justo en España 2011. Comercio y desarrollo* txostenean oinarriturik

5. Fairtrade Labelling Organizations (2012)

6. Bidezko merkataritzako produktuetatik, ia % 90 daude zigilu horrekin ziurtatuta. Hori dela eta, datu globalik ez izanik, kopuru horiek gutxi gorabeherako erreferentziatzat eta osotasunaren zenbatespentzat hartzen ditugu.

7. Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundea (2012)

4. Hamar arrazoi ematen dizkizugu bidezko merkataritzako azukrea kontsumitzeko

Bidezko merkataritzako azukrea ekonomia sozial eta solidarioko mugimendu horrek sustatzen dituen printzipio eta praktiketara egokitzen da, horiek izanik sektoreko talde ekoizleen eta erakundeen funtzionamendua inspiratzen duten funtsezko balioak. Askoz gehiago sar litezke, baina laburbildu beharrean, hauek lirateke bidezko merkataritzako azukrea kontsumitzeko gure hamar arrazoi nagusiak.

1. Langileek soldata duina jasotzen dutelako
2. Gizonezko zein emakumezkoek lan beragatik soldata bera jasotzen dutelako
3. Haurren lan-esplotaziorik ez dagoelako
4. Ingurumena errespetatzen duelako
5. Epe luzerako merkataritza-harremana mantentzen duelako
6. Ekoizpenaren zati bat aurrez finantzatzen duelako
7. Erakundeek era demokratikoan funtzionatzen dutelako
8. Identitate kulturala errespetatzen duelako
9. Etekinen zati bat komunitate guztia garatzeko proiektuetan erabiltzen delako
10. Kalitate handikoa delako

Nork ekoizten du bidezko merkataritzako azukrea?

Espanian merkaturatzen den bidezko merkataritzako azukrea Ekuadorretik, Filipinetatik, Mauriziotik, Paraguitik eta Costa Ricatik dator. Ondoren, azukre hori ekoizten diharduten taldeak labor deskribatzen dira.

EKUADOR

MCCH MAQUITA CUSHUNSHIC. Kitxuaz “hel diezaio-gun eskua elkarri” esan nahi du. 1985. urtean sortu zen, Quitoren hegoaldeko txabola-auzoetako biztanleak nekazaritzako ekoizpen-unitate txiki eta ertainen elikagaien hornitzeko, merkaturatzeko eta produktu-trukeko harreman bidezkoagoak erdieste aldera, hala hirian nola landa-eremuetan. MCCH-ren barruan 400 landa-erakunde baino gehiago daude, herrialdeko 21 probintzian, eta 26.000 lagun daude tartean.

www.fundmcch.com.ec

Camari. Kitxuaz “atsegina” esan nahi du. Fondo Ecuatoriano Populorum Progressio (FEPP) delakoaren merkaturatze-sistema solidarioa da, Ekuadorreko Apezpiku Batzarraren babespekoa. Hain zuzen, 1970. urteaz geroztik, FEPPk herrialdeko herri xehearen garapenean laguntzen du, gaikuntzaren, kredituaren eta laguntza teknikoaren bidez. Camari 1981. urtean sortu zen, FEPPren jardueraren osagarri, nola landa-eremuko ekoizleek hala Ekuadorreko hirietako bazter-auzoetan dauden ekoizleek merkaturatzeko dituzten arazoei aurre egiteko, nekazaritza eta abeltzaintzako zein eskulangintzako produktuei dagokienez.

www.camari.org

FILIPINAK

Pitafa-Pisang Tauman Farmer's Association. 30 nekazari-familia inguru biltzen ditu Panay uhartean (Filipinak). Erakundeak bidezko prezioak lortzen ditu, eta haren soldatak alde handiz gainditzen dute inguruko bategen bestekoa. Bidezko merkataritzako sarearen bidez egiten dituzten esportazioekin ekoizpen-jarduerak aurrean jartzen dizkien zailtasunak konponduz joateko baliabideak eskuratzen dituzte, hala nola energia elektrikorik ez izatea, makinak zaharkituta egotea, garraio-zailtasunak, eta abar. Nekazaritza ekologikoaren irizpideei jarraituz ekoizten dute.

MAURIZIO UHARTEAK

MCAF (Mauritius Cooperative Agricultural Federation). 1950. urtean fundatu zutenetik, MCAF pixkanaka hazi izan da, harik eta Maurizio uharteetan kanabera-azukrea ekoizten duen erakunderik handiena bihurtu arte. MCAFek azukre-kanabera prozesatu, eta Azukre Sindikatu Nazionalari saltzen dio, hori izanik Maurizioko esportatzaile bakarra. Erakundeak 20.000 kide dauzka, eta haietatik % 80 inguru nekazaritzako ekoizpen-unitate txikiak edo ertainak dira. MCAFek ongarrria eskuratzen die kooperatibistei, eta aholku ematen die azukre-kanabera hazteari dagozkion gaietan.

<http://mcafcoop.com>

PARAGUAI

Cooperativa Manduvirá. Arroyos y Esteros hirian, Paraguain. 1975. urtean sortu zen, eta eskualdeko 1.500 pertsona biltzen ditu; beren azukre-fabrikaren jabe dira, eta 17 herrialdetara esportatzen dute, bidezko merkataritzako sarearen bitartez. Urtero, batzar nagusian bildu, eta bidezko merkataritzako saria nola inbertitu erabakitzen dute. Normalean % 50 ekoizleei ematen zaie, eta haiek ekoizpena, etxebizitzak nahiz seme-alaben hezkuntza hobetzeko erabiltzen dute. Beste % 50a komunitate osoarentzako hezkuntzaren, osasunaren eta nekazaritza organikoaren alorreko proiektuak finantzatzeko erabiltzen da.

www.manduvira.com

MONTILLO / Arroyense. Nekazari-kooperatiba hori 1995. urtean sortu zuten, eta gaur egun 400 kide baino

gehiago ditu. Haren xedea da inguruaren garapena iraunkortasunez lortzea ekonomiaren zein gizartearen aldetik. Bidezko merkataritzan lortzen diren aparteko irabazien % 50 ekoizleentzat da zuzenean. Era berean, zerbitzu erabilgarriak ematen zaizkie, hala nola kredituak, ibilgailuak erostea, eta abar. Beste erdia komunitatearentzako proiektuak garatzeko erabiltzen da.

COSTA RICA

Cooperacañera (Cooperativa Cañera de San Ramón R.L.). Azukre-kanabera ekoizten eta industrializatzen diharduten hiru kooperatibaren elkarketa da. Baditu 600 kide baino gehiago, eta Costa Ricako azukre zuriko kooperatibarik txikiena da. Bidezko merkataritzaren bitartezko salmentei esker, prezio duinagoa lor dezakete nekazariarentzat, eta ingurumen-baldintzak hobetu, azukre-kanaberaren zein hura ekoizteko tekniken aldetik. Azken urteetan nekazaritza ekologikoa eraman dute aurrera.

Cooperativa Coopeagri. 1962. urtean sorturiko kooperatiba bat da, herrialdeko industriaguneei eta finantzaguneei eragiten zuten esplotazioari erantzute aldera. Kooperatibak 16.000 pertsona biltzen ditu, eta gutxieneko prezioa merkatukoa baino handiagoa izango dela bermatuz merkaturatzen ditu bere produktuak. Esportazioetatik sortzen diren baliabideak ekoizleen aldeko hainbat programetan erabiltzen dira, tartean honako hauek daudela: pizgarri ekonomikoak ordaintzea; kafe-hazitegiak ezartzea, eta Peñas Blancas ibaiaren arroa babestea. Ekoizleek erosketaren % 60 ere jasotzen dute aurretiaz.

www.coopeagri.co.cr



5. Bidezko merkataritzari eta kanpainari buruzko informazio gehiago izateko esteka interesgarriak

Bibliografiako eta estatistikako erreferentziak

- Agustí Bou i Tort. *El azúcar. Producción y consumo en España, la Unión Europea y resto del mundo*. Fórum Café, Kafearen Forum Kulturala. 2002ko ekaina. www.forumdelcafe.com/pdf/El%20azucar,%20produccion%20y%20consumo.pdf
- Asocaña (Asociación de Cultivadores de Caña de Azúcar de Colombia) www.asocana.org
- Carro de Combate. *Amarga dulzura. Una historia sobre el origen del azúcar*. Argitaratzeko dagoen sarrera-kapitulua. 2013. www.carrodecombate.com
- Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundea. *El Comercio Justo en España 2011. Comercio y Desarrollo*. CECJ. Madrid: 2012 comerciojusto.org/wp-content/uploads/2012/09/Informe-completo-20111.pdf
- Fairtrade International. *Annual Report 2011-12. For producers, with producers* Fairtrade International. Born: 2012 www.fairtrade.net/fileadmin/user_upload/content/2009/resources/2011-12_AnnualReport_web_version_small_FairtradeInternational.pdf
- Fairtrade Labelling Organizations. *Monitoring the scope and benefits of Fairtrade*. Laugarren edizioa. Fairtrade International. Born: 2012 www.fairtrade.net/fileadmin/user_upload/content/2009/resources/2012-Monitoring_report_web.pdf
- FAOSTAT. Nazio Batuen Elikadura eta Nekazaritzarako Erakundearen Estatistika Zerbitzua faostat.fao.org
- IDEAS, Korporazio Transnazionalen Behatokia. *Boletín 10: El sector del azúcar*. IDEAS. Kordoba: 2005 comerciojusto.org/wp-content/uploads/2011/12/B10_Azucar.pdf
- Infocomm: Merkataritzari eta Garapenari buruzko Nazio Batuen Konferentziaren (UNCTAD) oinarritzko produktuen inguruko merkatu-informazioa. Azukrea: <http://r0.unctad.org/infocomm/francais/sucre/plan.htm>
- International Sugar Organization www.isosugar.org
- Opciones (30. zk.). *Consumo consciente de azúcar. ¡Que no te amargue un dulce!* CRIC. Bartzelona: 2009 opcions.org/sites/default/files/revistas/OPCIONES-30-castellano-WEB.pdf
- Sugaronline www.sugaronline.com

Estekak

- Bidezko Merkataritzako Estatu Koordinakundea www.comerciojusto.org
- Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundea www.wfto.com
- Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundea – Europa www.wfto-europe.org

“Bidezko merkataritza elkarrizketan, gardentasunean eta errespetuan oinarrituriko sistema komertzial bat da, nazioarteko merkataritzan zuzentasun handiagoa lortu nahi duena, gizartearen eta ingurumenaren inguruko irizpideetan arreta berezia jarrita. Lagungarria da garapen iraunkorrean, baldintza komertzial hobeak eskainiz eta egoera ahuleko ekoizleen eta langileen eskubideak ziurtatuz, Hegoaldean bereziki.”

Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundearen definizioa



Jarraiguzu:



www.facebook.com/CEComercioJusto



[@CEComercioJusto](https://twitter.com/CEComercioJusto)



www.linkedin.com/company/coordinadora-estatal-de-comercio-justo



[CEComercioJusto](https://www.youtube.com/CEComercioJusto)

Laguntzaileak:

